

Bera-Berak sasoian darral



Akaba Bera-Bera eskubaloi taldeak aldarre onari eutsi dio Europako Txapelketan. Reyes Karrereren neskek ez dute arazo handirik izan Eslobeniako Zalec taldeari irabazteko. Orain, Akaba Bera-Berak Espainiako Liga

txapelketan onenen artean jarraitzea du helburu.

Eskuz binakako pilota txapelketa abian



Martxan da eskuz binakako pilota txapelketa. Guztira, hamar bikote ariko dira nor baino nor, bi multzotan banaturik. Mikel Unanue da donostiar ordezkari bakarra, eta Pascualekin ari da. Bikote honentzat txapelketa ez da ondo hasi, lehenengo partida galdu zuten eta.

Nazioarteko krosa eta Sei Orduak ate joka



Donostiako kirolzaleek ezinbesteko hitzorduak izango dituzte datozen asteetan. Urtarrilaren 27an, igandea, nazioarteko krosa jokatu da Donostiako zalditegian. Otsailaren 9an, aldiz, Euskadiko Sei Orduak txanda izango da Anoetako belodromoan.

Izar distiratsua Anoetako igerilekuan

Hilaren 19an, larunbata, Donostia Hiria igeriketa txapelketaren zortzigarren edizioa jokatu da, Anoetako Paco Yoldi igerilekuan.

Antolatzaileek Tom Dolan munduko txapelduna Donostiara ekartzea lortu dute.

Raul Perez

Txapelketa 10.00etan hasiko da. Aurreneko edizioetan bezala, Easo elkarteak goi mailako igerilariak ekarriko ditu Donostiara. Aipagarrienak Ameriketako Estatu Batuetatik etorritako igerilariak dira. Haiez gain, Euskal Herriko igerilaririk onenak izango dira gurean, Junkal Irigoien donostiarra tartean, eta baita Espainiako hainbat taldetakoak ere. Junkal Irigoien hirutan nagusitu da txapelketa honetan eta AEBetako Miamitik etorriko da. Hala ere, parte hartzaile guztien artean, Tom Dolan nabarmendu behar da. Igerilari estatubatuarra munduko onenetakoa da, bitan eskuratu du urrezko domina olinpiar jokoetan eta hainbat marka ondu ditu.

Sari hobeak irabazleentzat

Pepe Alonso Easo igeriketa elkartearen presidentek dioskunez, "Dolan aurtengo

Junkal Irigoien AEBetatik etorriko da

txapelketa irabazteko faborito nagusia da. Maila handiko kirolaria da eta ez litzateke harrizkeoa izango munduko marka berria ezartzea". Alonsoren esanetan, zorte handia izan dute Dolan gurera ekarrita: "Euskal Herrira inoiz etorri den igerilaririk onena ikusiko dugu. Bere entrenatzailea behin baino gehiagotan izan da Donostian eta kirolaz ezezik, hemengo gastronomiaz ere gozatu du. Hortaz, Tom Dolan Donostiara etortzea proposatu genionean, ideia ona iruditu zitzaion".

Donostia Hiria txapelketak 30.000 euro inguruko aurrekontua du (bost milioi pezeta) eta azken urteotan legez, Europako Ligaren barne dago. Antolakuntzak, bestalde, sariak hobetu ditu aurretik. "Puntako igerilariak etor daitezten, ezinbestekoa da sari onak jartzea. Sariak indartzeak, gainera, datozen urteei begira txapelketa sustatzeko balioko digu", diosku Alonsok. Easo elkartearen presidentearen ustez, "saririk gabe txapeldun ohiak besterik ez genituzke ekarriko. Diru aldetik ahalegin handia egin dugu, baina horri esker goi mailako txapelketa osatzea lortu dugu".

